



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ERAKUNDE ADIERAZPENA, IRIZAR TALDEAREN FILIALA DAN ALCONZA BERANGO ENPRESEAREN EGOEREARI BURUZ

(Abellanedan, 2022ko bagilaren 29an).

Alconza Berango enpresek 60 urte luzez industria-jarduera garrantzitsua garatu dau, teknologia propioa sortuz. Nazinoartean be presentzia zabala euki dau eta, horri esker, kalidadeko lanpostuak sortu eta mantendu ditu.

2013an Alconza Irizar Taldera batu zan eta, ondorioz, euskal enpresa-talde sendo baten kide bihurtu. Irizar Taldea hazten dabil, nazinoartean presentzia dauka, eta bere jarduerara bidaiarien, elektromobikortasunaren, energiaren, elektronikaren, motore eta sorgailu elektrikoaren eta konektagarritasunaren sektoreetan garatzen dau.

Hata guzti be, Alconza Berango enpresearen emoitzen eboluzinoak ez ditu egindako aurreikuspenak bete, eta ez hori bakarrik, eten barik galerak izan ditu; horrek enpresan apurka-apurka lanpostu ugari galtzea eragin dau 2013az geroztik.

Irizar Taldeak nagusitasun-egoerea daukan arren eta Euskadin etorkizuneko proiektuetan inbersino handiak egiten dituan arren, Taldeak erabagi dau plantillaren herenarentzako EEEda aurkeztea. Hori kolpe itzela izan da enpresarentzat, luzaro egon dira-eta bideragarritasun-planak egiten jarduerari bultzada barri bat emon eta dagozan lanpostuak bermatu eta mantentzeko helburuz.

Jakin badakigu etorkizunean Bizkaian industria-sektore lehiakor bati eutsiko badeutsagu, gertatzen ari diran aldeketetara egokitu behar dogula eta, horretarako, proiektu industrial barrizaille eta bideragarrien aldeko apustua egin behar dogula. Proiektuok lanpostu barriak sortzeko beharra ekarriko dabe beharbada, baina, aldi berean –eta azpimarratu gura dogu– gaur egun dagozan lanpostuei eusteko balio behar dabe.

Hori dala-ta, behean sinatzen dogun Bizkaiko Batzar Nagusietako alderdiok, honako honeek eskatzen deusaguz Bizkaiko Foru Aldundiari:

1.- Kolaboratu daijala Irizar Taldearen eta Alconza Berango enpresako beharginen arteko alkarrizketa-bideak mantentzeko, batez be enpleguari eusteko helburuz, eta gaur egun dagoan egoereari konponbide adostua eta ahalik eta egokiena emotea ahalbidetzeko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

2.- Jarduketa-programak abian jarri daizala, enpresa horreetako beharginen jakintza espezifikoa mantendu eta baliatzea ahalbidetzeko, bai eta behargin horreek industriaren sektoreak aurrean dituan erronketara egokitzeko be.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL SOBRE LA SITUACIÓN DE LA EMPRESA ALCONZA BERANGO, FILIAL DEL GRUPO IRIZAR

(Abellaneda, a 29 de junio de 2022).

La empresa Alconza Berango ha desarrollado durante más de 60 años una importante actividad industrial con el desarrollo de tecnología propia, amplia presencia internacional que han permitido la creación y mantenimiento de puestos de trabajo de calidad.

La incorporación de Alconza al Grupo Industrial Irizar en 2013, supuso su integración en un sólido grupo empresarial vasco en crecimiento con presencia internacional que desarrolla su actividad en los sectores del transporte de pasajeros, electromovilidad, energía, electrónica, motores y generadores eléctricos y conectividad.

No obstante, la evolución de los resultados de la empresa Alconza Berango no solo no han alcanzado las expectativas previstas, sino que las pérdidas continuadas han llevado a una importante y paulatina reducción de puestos de trabajo en la empresa desde 2013.

A pesar de la situación de liderazgo del Grupo Irizar y de las importantes inversiones en proyectos de futuro que realiza en Euskadi, la decisión del Grupo de presentar un ERE para un tercio de su plantilla actual ha supuesto un importante golpe tras un largo periodo en el que se han realizado diferentes planes de viabilidad con el objetivo de relanzar su actividad y garantizar el mantenimiento de los puestos de trabajo existentes.

Somos conscientes de que el reto de mantener en Bizkaia un sector industrial competitivo en el futuro implica una necesaria adaptación a los cambios que se están produciendo y que tenemos que apostar por proyectos empresariales innovadores y viables que puedan necesitar la creación de nuevos puestos de trabajo, pero también y queremos destacarlo, deben contribuir al mantenimiento de los puestos de trabajo actuales.

Es por ello que los partidos aquí firmantes de las Juntas Generales de Bizkaia, solicitamos a la Diputación Foral de Bizkaia:

1.- Que colabore para que se mantenga vías de diálogo, con el objetivo principal de mantenimiento de empleo, entre el Grupo Irizar y las y los trabajadores de la empresa



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Alconza Berango que permitan alcanzar una solución acordada y lo más adecuada posible a la situación actual.

2.- Que ponga en marcha programas de actuación que permitan mantener y aprovechar el conocimiento específico de las y los trabajadores de estas empresas, así como su adaptación a los nuevos retos que afronta el sector industrial.